



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Kalitate berezia duten elikagaiak EBren araudiaren babespean daude. Hain zuzen ere, araudi horrek bermatu egiten du **gainerako produktuei ezarritako betekizunak baino betekizun zorrotzagoak betetzen dituztela.**

1151/2012 Araudia (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideei buruzkoa (<https://www.boe.es/doue/2012/343/L00001-00029.pdf>)

Jatorrizko Izendapen Babestua (JIB)

Eskualde baten, leku jakin baten edo, egoera berezietan, herrialde baten izena, nekazaritzako produktu bat edo elikagai bat izendatzeko balio duena:

- Jatorriz eskualde, leku zehatz edo herrialde jakin horretakoa,
- Kalitatea edo ezaugarriak funtsean edo eskusiboki ingurune geografikoaren ondorio direnean, faktore naturalak eta giza faktoreak direla eta, eta
- Ekoizpena, eraldatzea eta elaborazioa eremu geografiko mugatuan egiten denean.

Gaur egun EAEn sei JIB daude:

Errioxa (http://www.euskadi.eus/web01-a2elikalk/es/contenidos/informacion/dop_rioja/es_dapa/dop_rioja.html)

Idiazabal (<http://www.quesoidiazabal.eus/denominacion-de-origen/informacion>)

Arabako Txakolina (http://www.euskadi.eus/web01-a2elikalk/es/contenidos/informacion/dop_txakoli_araba/es_dapa/dop_txakoli_araba.html)

Bizkaiko Txakolina (http://www.euskadi.eus/web01-a2elikalk/es/contenidos/informacion/dop_txakoli_bizkaia/es_dapa/dop_txakoli_bizkaia.html)

Getariako Txakolina (http://www.euskadi.eus/web01-a2elikalk/es/contenidos/informacion/dop_txakoli_getaria/es_dapa/dop_txakoli_getaria.html)

Cava (http://www.euskadi.eus/web01-a2elikalk/es/contenidos/informacion/dop_cava/es_dapa/dop_cava.html)

Adierazpen Geografiko Babestua (AGB)

Eskualde baten, leku jakin baten edo, egoera berezietan, herrialde baten izena, nekazaritzako produktu bat edo elikagai bat izendatzeko balio duena:

- Jatorriz eskualde, leku zehatz edo herrialde jakin horretakoa denean,
- Kalitate zehatz bat, ospea edo jatorri geografiko horri egotz dakioken bestelako ezaugarriren bat duenean, eta
- Ekoizpena, eraldatzea eta elaborazioa eremu geografiko mugatuan egiten denean.

Gaur egun, EAEn bi AGB daude:

Euskal okela (http://www.euskadi.eus/web01-a2elikalk/es/contenidos/informacion/igp_carne/es_agripes/igp_carne.html)

Gernikako piperra (http://www.euskadi.eus/web01-a2elikalk/es/contenidos/informacion/dop_pimiento/es_agripes/dop_pimiento.html)

Espezialitate Tradizional Bermatua (ETB)

Kategoria bereko beste elikagai batzuetatik bereizten dituzten ezaugarri espezifikoak dituzten produktuak dira. Gainera, nekazaritzako produktu edo elikagai horiek lehengai tradizionalak erabilia ekoitzi behar dira; bestela, osaerak eta ekoizpen edo eraldatze-moldeak tradizionalak izan behar dute.

Berme-markak

Berme-marka izan daitezke grafikoki adieraz daitekeen edozein zeinu, betiere enpresa askok erabiltzen dituztenean titularraren kontrolpean edo baimenarekin. Zehazki, berme-markek ziurtatzen dute dagozkien produktu edo zerbitzuek betekizun komun batzuk betetzen dituztela; bereziki, produktuaren zein ematen den zerbitzuaren kalitateari, osagaiei, jatorri geografikoari, betekizun teknikoei edo ekoizteko moduari dagokienez.

Gaur egun, Euskadin honako berme-marka hauek daude, EUSKOLABEL kalitate-markaren izenpean:

Kalitate produktuak - EUSKOLABEL (<http://euskolabel.hazi.eus/es/>)

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .

berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)